

## 2021/2022 ikasturteko OINARRIAK:

**ONARTZEKO PROZEDURA 538/2020 ebazpenaren arabera, otsailaren 17koa**

**TARIFAK, 17/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 15koa eta horren aldaketa 38/2021 FORU AGINDUA, apirilaren 21koa.**

## INFORMAZIO GARRANTZITSUAK

1.- Onartuak izan diren haurren familiak eta plaza erreserba dutenak, agiriak Tafallako Udalaren web orritik jaitsi eta matrikula **maiatzaren 24tik 28ra egingen dute**:

- Udaletxean (bulego bakarra) ALDEZ AURREKO HITZORDUAREKIN, telefonoz eskatu behar da, 948701811 edo 012 zenbakietan.

- Ziurtagiri digitala baduzu, Tafallako Udaleko erregistro telematikoan aurkez dezakezu aurreinkripzioa – <https://sedeelectronica.tafalla.es/carpeta-ciudadana/>

1.1) Ikastetxeetan hasteko, haurrak 16 aste beteak izan beharko ditu, ikasturtea hasi baino lehen egina

1.2) Ezarritako epean matrikula ez burutzeak plazari uko egitea ekarriko du eta ondorioz plaza hori berriz esleituko da, itxaron zerrendan dagoen ordenaren arabera.

1.3) Matrikula-aukera bat hautatzen denean, zentro berean beste aukera bat ukatzea dakar.

1.4) **2020ko diru-sarren egiaztagiria edo aitortpena ezartzen den epearen barruan ekartzen ez duen familiari ikasturte osoan kuota maximoa jarriko zaio.**

1.5) Ezin izango dute matrikula formalizatu Haur Eskolan ordaindu gabeko kuotak dituzten familiek..


## TARIFAK

F. A. 17/2021, otsailaren 15koa eta horren aldaketa F.A. 38/2021, apirilaren 21koa ezartzen ditu Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Udal Eskoletarako 2021-2022 ikasturteko tarifen kalkulua.

### **LEHENENGOA. Tarifak ordaintzea**

Tarifen ordainketa egingen da familiaren diru-sarreraren arabera. Familia bakoitzak ordaindu beharreko tarifa kalkulatzeko, egoki den taula aplikatuko da, foru agindu honen bosgarren oinarrian agertzen direnetik. Betiere, hileko gehieneko tarifak honako hauek izanen dira:

HILABETEKO TARIFA		
Eskolatzea	Ordutegi osoko unitatea	183 euros
Jantokia	Tarifa	95 euro



### **BIGARRENA. Familia-unitatearen kontzeptua**

1. Honako hauek dira familia-unitateko kide zenbagarriak, foru agindu honek ezarritakoaren ondorioetarako:

–Haurren bi gurasoak, legez banandurik ez daudenak, edo dibortziatu edo banandu ondoan zaintza eta jagoletza partekatua dutenak, edo, bestela, adingabea zaintzeko eta babesteko ardura duten tutoreak edo pertsonak.

–26 urtetik beherako seme-alabak, familiaren egoitzan bizi direnak eta lan errentarik jasotzen ez dutenak, baldin eta egoera hori frogatzen bada lan bizitzaren ziurtagiri negatiboaren bidez edo hori frogatzen duen agiri ofizial baten bidez. Orobat, epai baten ondorioz ezinduriko seme-alabak, guraso-ahal luzatu edo birgaituaren mende daudenak.

–Banandutako bikotekideek zaintza partekatua badute eta berriz ezkondu badira edo bikote egonkorra eratu badute, ezkontide edo bikotekide berria ez da familia-unitateko kideztat hartuko ondorio hauetarako.

–Alargunak berriz ezkondu badira edo bikote egonkorra eratu badute, ezkontide edo bikotekide berria familia-unitateko kideztat hartuko da ondorio hauetarako.

–Gurasoak banantzen edo dibortzitzen baldin badira, gurasoetako batek edo legezko tutoreetako batek baldin badu zaintza eta jagoletza, ez da kide konputagarritzat joko adingabeakoaren zaintza eta jagoletza ez dituen gurasoa.

–Gurasoetako batek beste seme-alaba batzuen zaintza eta jagoletza partekatua badu, horien erdiak ere familia-unitateko kideztat hartuko dira.

–Aplikatu beharreko tarifa kalkulatzeko bakarrik, %33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua duen seme-alaba bakoitzeko, bi kontatuko dira, familia-unitatearen kideen kopurua zehazteko orduan.

–Harreran dauden adingabeen kasuan, harrerako familiari aplikatuko zaio aurreko puntuetan xedatu dena.

2. Aurreko puntuan aipatutako inguruabar guztiak behar bezala justifikatu beharko dira, erakunde ofizialek egindako agirien bidez: familia liburua, erroldatze-ziurtagiria (2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa), bizikidetza ziurtagiria, banantze-demanda jarri izanaren frogagiria, epai judizialak, errenta aitortpena edo egoera hori frogatzen duten beste agiri ofizial batzuk.

Baldin familia liburuan ageri ez den seme-alabarik bada familia-unitatean, bestelako agiri ofizialen bidez frogatu beharko da; adibidez, jaiotza agirien, banantze edo dibortzio epaien eta abarren bidez.

3. Aplikatzeko tarifa kalkulatzeko, familia-unitateko kideztat hartuko dira bakarrik halakotzat akreditatuta daudenak matrikula egiten denean.

4. Matrikula egin eta gero, ez dira kontuan hartuko familia-unitatearen kideen kopuruan dauden aldaketak, ikasturtea hasten den egunera arte gertatzen ahal diren salbuespen hauekin: jaiotza, adopzioa, harrera, ezgaitze judiziala edo guraso bakarreko familiaren edo guraso bakarreko familiaren egoeraren akreditazioa. Edozein kasutan, egoera berria behar bezala frogatu beharko da.

5. Haur bati baja eman ondoan berriro matrikulatzen bada, ikasturte berean, familia unitatearen kide kopurua izanen da lehendabiziko matrikula egitean aurkeztu zena.


### **HIRUGARRENA.Familia unitatearen eta per capita errentaren urteko errenta kalkulatzea**

1. Honako hau da PFEZaren aitortpena aurkeztu behar duten familia-unitateko kide bakoitzaren errenta indibiduala:

– Zerga-oinarriaren zati orokorra (507 laukia).

– Gehi capital higigarriaren etekinen saldo positiboa (8810).

– Gehi ondare-eskualdaketen saldo positiboa (8808 laukia), salbu etxebizitza erosteko edo birgaitzeko jasotako dirulaguntzak (708 laukia).



- Gehi PFEZaren ondorioetarako salbuetsizat jotzen diren gainerako errenta eskuratuak, hala nola baliaezintasun iraunkor absolutuko pentsioak edo baliaezintasun handikoak, kalte-ordainak, loteria sariak, edo aitak edo amak seme-alaben mantenurako ematen dituen urteko sariak (529 laukia).
- Ken ezkontidearen alde konpentsazio pentsioagatik ordaindutako kantitateak eta elikatzeko urteko sariak, biak ere epailearen erabakiz ezarriak, eta bikotekide egonkorren alde ordaindutako kantitate legez galdagarriak (511 eta 822 laukiak).

2. Familia-unitatearen urteko errenta izanen da aitaren eta amaren edo legezko tutoreen 2020ko diru-sarrerera edo errenta indibidual justifikatuen batura. Batura horri aurretiazko kuota diferentziala kenduko zaio, familia-unitateko kide konputagarrien PFEZaren aitorpenetakoa (578 laukia).

**3. Ondorio praktikoetarako, familia-unitatearen urteko errenta kalkulatzeko, eragiketa hauek egingen dira 2020ko ekitaldiko PFEZeko laukiekin:**

**507 laukia + 8810 laukia + 8808 laukia - 708 laukia + 529 laukia - 511 laukia - 822 laukia - 578 laukia.**

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren inprimakian 578 laukia agertzen ez bada, 578 laukiaren balioa 576 eta 577 laukien balioa batuz kalkulatu da, hala badagokio.**

**4. Per capita errenta lortzeko, eragiketa hau egingen da: familia-unitatearen errenta zati familiako kide guztien kopurua.**

5. Pertsona fisikoen errentaren gaineko 2020ko zergaren aitorpena aurkeztuta justifikatuko dira familia-unitatearen urteko diru-sarrerak. Aitorpena egin beharrik ez bada, dagokion dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, besterik ezean, diru-sarrerei buruzko zinpeko aitorpena eta/edo zentroaren titularra den toki entitateak familiaren 2020. urteko diru-sarrerak kalkulatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.

6. Interesdunek aurrez aurre aurkeztu ahal dute dokumentazioa, edo kasuan kasuko entitate titularra baimendu, administrazio publikoek dituzten beharrezko datuak biltzeko. Baimen hori eskabide bitartez eman beharko da, dokumentazioa aurkezteko ezartzen den epearen barrenean, eta adierazi agiria noiz eta zein organotan aurkeztu zen.

7. Ezarritako epearen barrenean 2020ko errenta-aitorpena edo diru-sarreraren frogagiriak aurkeztu ez dituztenei, matrikulatutako eskola-egun motari dagokion kuota altuena aplikatuko zaie ikasturte osoan.

8. 2020an aitortutako diru-sarrerak nabarmenki murrizten direnean errenta jasotzen zuen familia-unitateko kideren bat hil delako, horren berri ematen ahalko da ikasturtea hasi baino lehenago, hala dela frogatzen duten agiriak erantsiz betiere. Egun horretatik aurrera gertatzen diren aldaketak ez dira kontuan hartuko 2021-2022 ikasturteko tarifa kalkulatzeko.


### **LAUGARRENA. Kuotaren salbuespena.**

1. Kuota ordaintzetik salbuestea baloratuko da haurra arrisku sozialeko edo psikosozialeko faktoreen menpe dagoenean eta garapenean atzerapena duenean, egoera ekonomikoaren eta familiarraren arabera. Edonola ere, salbuespen hori onesteko, beharrezkoa izanen da aldeko txostena ematea egoki den udaleko gizarte zerbitzuetako lantaldeak eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko Arreta Goiztiarreko Taldeak.

2. Kasuan kasuko udaleko gizarte zerbitzuek proposatu eta igorriko diote salbueste eskaera Hezkuntza Departamentuari, eta hark onetsi edo ezetsiko du, aurkeztu diren txostenen arabera. Bidezkotzat joz gero, justifikazio zehatzagoa eska dezake igorritako proposamenari buruz.

3. Egoki den udalak eta Hezkuntza Departamentuak hartuko dute beren gain tarifa. Udalak ordainduko du jantokiari dagokion tarifa, eta Hezkuntza Departamentuak, eskolatzeari dagokiona.

4. Ikasturtean herri batetik bestera aldatzen bada haurraren bizilekua, udalerrri berriko haur eskolarako mantenduko da kuotaren salbuespena.



5. Kuotatik salbuetsita dagoen haurren matrikula egiten bada haren udalerriz kanpoko haur eskola batean leku hutsik ez egoteagatik haren udalerriko haur eskolan, Hezkuntza Departamentuak aztertuko du ea ordaintzen dien moduluaren portzentajea erroldatu gabeko familiei, baldin eta haur eskolaren titularra den udalak halakorik aplikatzen badu, baita eskolatzeari eta jantokiari dagokiena ere.

**BOSGARRENA.–Murriztapenak.**


1.Oro har, lehen oinarrian ezarritako tarifek per capita errentaren arabeko murrizketak izanen dituzte, eta ondoko taulen arabera ordainduko dira tarifak:

a) Ohiko familien kasuan:

Per capita errentaren tarteak				
Hemendik	Honaino	Eskola	Jantokia	Eskola + Jantokia
Mayor de	15.000	183	95	278
12.400,01	15.000	154	95	249
10.700,01	12.400	118	95	213
9.300,01	10.700	89	95	184
7.980,01	9.300	67	84	151
6.650,01	7.980	45	84	129
5,500,01	6.650	39	66	105
4.500,01	5.500	29	58	87
3350,01	4.500	18	56	74
Menor o igual a 3.350		5	52	57

b) Guraso bakarreko familien kasuan.

Per capita errentaren tarteak				
Hemendik	Honaino	Eskola	Jantokia	Eskola + jantokia
Mayor de	15.000	164	84	248
12.400,01	15.000	137	84	221



10.700,01	12.400	105	84	189
9.300,01	10.700	79	84	163
7.980,01	9.300	59	66	125
6.650,01	7.980	39	66	105
5.500,01	6.650	33	52	85
4.500,01	5.500	28	42	70
3350,01	4.500	16	32	48
Menor o igual a 3.350		3	25	28

2. Ikastetxe berean –edo ikastetxe desberdinetan baina udal beraren titulartasuna duten ikastetxeetan betiere– bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiek %50eko deskontua izanen dute bigarren haurragatik dagokien eskolatze tarifan. Hirugarren edo hurrengo seme edo alabarentzat ezarritako eskolatze tarifa izanen da bigarrenarentzat ezarritako bera.

Bi senidek edo gehiagok jantokia erabiltzen dutenean, lehenbizikoak errentaren arabeko tarifa ordainduko du, eta hurrengoei gutxieneko tarifa egokituko zaie.

3. Hezkuntza Departamentuak (Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa) hala eskatuta, hezkuntza premia bereziak dituzten haurren matrikula egiten bada udalekoa ez den haur eskola batean, Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuko du errolatuta ez dauden familien moduluaren ehunekoaren ordainketa, baldin eta haur eskolaren titularra den udalak aplikatzen badu, baita eskolatzeari eta jantokiari dagokion ordainketa ere, kuotatik salbuetsita badago.

### **SEIGARRENA. Hasierako kuota.**

Toki entitate bakoitzak ezarriko du nahitaez ordaindu beharreko hasierako kuota ikasturte bakoitzerako; azken hileko ordainketan konpentsatuko da.

### **ZAZPIGARRENA. Tarifen doikuntza.**

1. Tarifak ikastetxea 208 egunetan irekita egoteagatik sorraraziko dira (10,6 hilabete).


Matrikula ikasturtea hasi ondoren egiten bada, eskolatze eta jantokiko tarifak haurra matrikulatzen denetik aurrera ordainduko dira, eta hilabeteari dagokion tarifaren zati proportzionala ordainduko da.

2. Hurrek jantoki zerbitzua erabiltzen badute, oso-osorik ordaindu beharko dute jantoki zerbitzuari dagokion kuota, salbu kasu hauetan:

- a) Erabiltzailearen nahiarekin zerikusirik ez duten arrazoiak.
- b) Egokitze aldian.
- c) Hutsegite justifikatuak, beti ere ikastetxeko zuzendaritzari aste bete lehenago haien berri eman bazaio menuaren hornidura eteteko behar adinako denborarekin.

Aipatutako kasuetan, jantokiko laguntzaileei dagokiena ordainduko dute bakar-bakarrik; hau da, hileko tarifatik deskontatu beharko da menuaren edo cateringaren kostua, betiere familia bakoitzak ordaintzen duen tarifaren arabera kalkulatu.

3. Jantoki zerbitzua egun zehatzetan erabiltzeagatik tarifa: 5 euro eguneko, gehieneko tarifaren (95 euro) eta hileko zerbitzu egunen (19 egun) arabera kalkulatu.



4. Jantoki zerbitzua behin ikasturtea hasita erabiltzen hasten bada, jarraitzeko konpromisoarekin, arrazoi justifikatuengatik eta Hezkuntza Departamentuak oniritzia emanik: araudiaren arabera dagokion tasa aplikatuko da.

5. Familiak ekartzen duten esnea besterik hartzen ez duten umeek ez dute jantokiko kuota ordainduko aldi horretan.

### **ZORTZIGARRENA. Baja.**

1. Baja emanen da nahitaez kasu hauetan:

a) Ikasturtea hasi eta hamabost egun natural jarraian iraganik, haurra ikastetxera ez azaltzea; orobat, ikastetxean hasi eta, jakinarazpen edo frogagiririk gabe, hamabost egun naturalean jarraian ez agertzea. Kasu horietan, entitate titularrak familiari idatziz jakinaraziko dio baja eman zaiola haurrari ikastetxean. Baja gauzatuko da jakinarazpena egin eta hamabost egunean. Familiak ordainduko beharko ditu eskolatzeari eta jantoki zerbitzua erabiltzeari (laguntzailea eta menua) dagokien kuota, baja gauzatzen den egunera artekoa, eta eragindako gastuak konpentsatzeko hilabete bateko kuota.

b) Haurraren familiak bi hileko kuota ez ordaintzea. Hala izanez gero, ez da hasierako kuota itzuliko.

2. Ikasturtean zehar borondatezko bajak badira, justifikatuak izan edo ez, idatziz jakinarazi beharko zaizkio ikastetxeko zuzendaritzari hamabost egun lehenago. Kasu horietan, familiak ordainduko du baja gauzatzen denera arteko kuota; eskaera egin eta hamabost egunera gauzatuko da baja.

Ikasturtean zehar baja justifikatua izanez gero (semea edo alaba gaixotzea, bizilekua aldatzea, langabezia, ustekabeko diru-premia larria suertatzea, edo ikastetxeko entitate titularrak horien antzekotzat jotzen duen bestelakoren bat), ordaindutako hasierako kuota itzuli egingen da.

Baja justifikatua ez bada baina postu hutsa berehalakoan betetzen bada itxaron-zerrenda izateagatik, familiak ez du ordainduko hileko kuota bat eragindako gastuengatik. Hutsik gelditutako tokia ez bada berehala betetzen, familiak hilabete bateko kuota ordaindu beharko du eragindako gastuak konpentsatzeko.

3. Jantokiko zerbitzua erabiltzeko borondatezko baja hartzen bada, justifikatua izan ala ez, familiak ordaindu beharko du jantokiko laguntzaileari dagokion zati proportzionala, baja gauzatzen denera artekoa (eskaera egin eta 15 egunera).

Borondatezko baja hartu ondoren jantoki zerbitzua berriro erabili nahi bada, aldi horretan ikastetxean lan egin duen laguntzaileari proportzioan dagokion zatia pagatuko da.

### **BEDERATZIGARRENA. Tokia ez galtzeko eskubidea.**

Ikastetxean matrikula eginda ume bat ezin bada eskolara joan gaixo dagoelako edo bere gurasoetako bat edo anai-arrebetako bat gaixo dagoelako, eskubidea izanen du eskolan tokia gordetzeko, eskolatze-kuota ordainduz eta ezinbestekoa den denboran jantokiko laguntzaileari dagokion kuota ordainduz, betiere arrazoia dokumentu bidez frogatzen bada.

Eskolara ez joateko arrazoia behin desagertuta umea ikastetxera joaten ez bada, baja emanen zaio, eta itxaron-zerrendan dagoen lehenbizikoari eskainiko zaio postu hutsa.

Toki entitateak eskumena izanen du familiak alegatzen duen arrazoia askitzat hartzeko edo ez hartzeko, baita tokiaren erreserba-denbora erabakitzeko ere.

### **HAMARGARRENA. Ordaindu gabeko kuotak.**

Entitate titularreko arduradunek eskatuko dituzte ordainduko gabeko kuotak, lege bidezkoa den prozeduraren bitartez.

### **HAMAİKAGARRENA. Berste udalerrietako haurrak onartzea.**

Tafallan erroldatuta ez dauden hurrek **ez dute bere gain hartuko** Udal titularrari dagokion moduluaren portzentajea.